



ZARAUZKO UDALA



Lurzoru eta Etxebizitzarako
Udal Erakundea

Entidad municipal
para el suelo y la vivienda

Zarauzko 10.2 – Salberdin – areako R3 partzelan eraikiko diren erregimen bereziko 52 udal etxebizitza tasatu eta eranskinak zozketaren bidez jabetza-erregimenean adjudikatzeko prozedura. ERABAKIA:

1. Erregimen bereziko 52 udal etxebizitza tasatu (EBUET) adjudikatzeko prozeduran, 2021eko ekainaren 17an Administrazio Kontseiluak onartu zituen behin-behineko zerrendei aurkeztutako erreklamazioak onartzea eta ez onartzea, arduradun juridikoak sinatutako txostenaren arabera.
2. Salberdinen 52 EBUETen zozketan parte hartzeko onartutako eta baztertutako bizikidetzta-unitateen behin betiko zerrendak onartzea eta enpresa sustatzailearen eskura jartzea zozketa burutu dezan. Behin betiko zerrendak I eranskin bezala erantsi direnak dira.
3. Parte-hartzaileak behin betiko zerrendan azalduko dira, onartu izan diren moduan, baina horrek ez du esan nahi eskatutako baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztenik. Etxebizitzak behin betiko adjudikatu aurretik eta eskatzaile bakoitzak sinatutako adierazpenarekin bat etorrita egiaztatuko da legezko baldintzak betetzen dituztela.
4. Udalaren iragarki-tauletan eta web-gunean (www.zarautz.eus) argitaratuko dira zozketan parte hartzeko onartu eta baztertu diren bizikidetzta-unitateen behin betiko zerrendak. Behin betiko zerrendak onartzeko erabakiaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dira.

Zarautzen, 2021eko uztailaren 7a

Izpta.: Xabier Txurruka Fernández
Zarauzko Alkatea